

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2016.02.23**

Tolosako Udaletxean, 2016ko otsailaren 23an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 23 de febrero de 2016, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:  
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko kontuhartzailea:  
Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2015eko abenduaren 29ko Ohizko Osoko bilkurakoa.  
2016ko urtarrilaren 26ko Ohizko Osoko bilkurakoa.
2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

### **Orden del día**

1. Aprobación de las siguientes actas:  
Sesión ordinaria del 29 de diciembre de 2015.  
Sesión ordinaria del 26 de enero de 2016.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por

2016ko urtarrilaren 1etik 31ra (2016/1-2016/187).

3. Saharako Errepublika Arabiar demokratikoa aldarrikatu zuteneko 40. urteurrena dela eta, adierazpen instituzionala.
4. Correscales, prekarietatearen aurkako Korrikari babesa emateko adierazpena.
5. Zinegotzi baten kargu uztearen jakitun izatea.
6. Galderak eta eskaerak.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. **Ondorengo akta onartzea:**  
**2015eko abenduaren 29ko Ohizko Osoko bilkurakoa.**  
**2016ko urtarrilaren 26ko Ohizko Osoko bilkurakoa.**

Izenburuan aipatutako aktak, aho batez, **onartu** dira.

2. **Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**  
**2016ko urtarrilaren 1etik 31ra (2016/1-2016/187).**

Alkatetzak 2016ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean (2016/1-2016/187) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

3. **Saharako Errepublika Arabiar demokratikoa aldarrikatu zuteneko 40. urteurrena dela eta, adierazpen instituzionala.**

Partehartzeak:

... Jose Ignacio Asensio Bazterra PSE-EE alderdiko zinegotziak adierazi du aldeko botoa emango duela.

la alcaldía:

Del 1 al 31 de enero de 2016 (2016/1-2016/187).

3. Declaración institucional con motivo del aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática.
4. Declaración a favor de la carrera contra la precariedad laboral
5. Tomar conocimiento de la renuncia del cargo de un Concejal.
6. Ruegos y preguntas.

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1. **Aprobación de las siguientes actas:**  
**Sesión ordinaria del 29 de diciembre de 2015.**  
**Sesión ordinaria del 26 de enero de 2016.**

2. **Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**  
**Del 1 al 31 de enero de 2016 (2016/1-2016/187).**

3. **Declaración institucional con motivo del aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática.**

... Lore Agirre Zipitria (EHBILDU): *“Badira 40 urte, mendebaldeko Sahara Espainiar Estatuak abandonatuta utzi zuela; eta, oraindik orain, deskolonizatzeko dagoen territorio ez autonomoa da; eta gainera, Marrokoak okupatua. Nahiz eta lau hamarkada hauek pasa Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta 80 estatu baino gehiagoren aitortza izan, Saharar herriak okupazioa sufritzen du eta Giza eskubideen etengabeko zapalketa: torturak, bortxazko desagertzeak, erailketak... Eta aurreko alditan esan bezala, Espainiar Estatuak lau hamarkada daramatza beste aldera begiratzeko eta bere erantzunkizuna alde batera uzten. Eta bitartean, milaka eta milaka sahararrek bai lurralde okupatuetan, baita kanpamentuetan ere, herri aske batean bizitzeko borrokari tinko eusten diote.*

*Eta zentzu honetan, guk EHBILDUtik, aurreko urte guztietan bezala, gure elkartasunik beroena eta indartsuena helarazi nahi diegu eta borroka honetan bidelagun izango gaituztela adierazi. Eta zentzu horretan, testuan aipatzen den Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera egindako ikerketa Tolosako Udalak aurreko legealdian ikerketa hori diruz lagundu zuela; eta noski, gaurko mozioari aldeko bozka emango diogu.*

*Hala ere, ez nuke aipatu gabe utzi nahi puntu bat: oso ondo dago Espainiar Estuari eta Nazio Batuei bere erantzunkizuna eskatzea, baina, era berean, Eusko Legebiltzarrari eskatuko nioke Marokorekin dituen harreman diplomatikoak eten ditzan. Ez baita posible, alde batetik, Sahararen aldeko mezuak ematea eta zentzu berean, Marokoko unibertsitatean bi gazte saharar erail ondoren, 2 egun ondoren, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak Marokoko Unibertsitateko bi erretoreei harrera egitea eta hurrengo egunean Marokoko kontsulari ere ongi etorria egitea. Hori ez da posible. Beraz, bakoitza izan dadila bere ekintzen erantzule eta bakoitzak har ditzala bere gain bere erantzunkizunak.”*

... Olatz Peon alkateak: *“Tamalez, esango nuke urtez urte onartzen dela Saharako Errepublikarra Arabiar Demokratikoa aldarrikatzen duen mozioa. Horrela eskatzen digute Euskal Fondoaren bitartez, Mendebaldeko Sahararen aldeko mozio hau aurkeztea. Bereziki eskatzen da, eta horrela egiten da urtero, giza-eskubideen errespetua eta euren etorkizuna erabakitzeko libre izan daitezela aldarrikatzea, behin eta berriro. Aurreko txandan Hassana Haaliaren auzia izan genuen irizpide eta bere asilo eskaera, zeinik Espainiko gobernuak ukatzen zuen momentu horretan. Aurten, urrian izandako uholdeak aipatzen dira mozioan. Uholde hauen berri izan genuen Tolosaldea Saharekin Elkarteak aurkeztu zuelako hango egoera larria. Orduan Tolosan musika emanaldi bat antolatu zen herritar eragile batzuen bitartez, Zerkausian, uholdeak eginiko kalteak konpontzen laguntzeko. Udalak ere bere baliabideen arabera diru ekarpen gehigarria egin zuen egoeraren larritasuna lehuntzeko asmoz. Ostegun honetan, areto honetan bertan, Eskualdeko alkateen bilera egingo da “Oporrak Bakean” programaren inguruan hausnarketa bat egiteko eta, ostiralean, Tolosako udaleko bi zinegotzi Tindufeko bidaia instituzionalean parte hartuko dute. Beraz, mozioan aipatzen den bezala, lankidetzan jarraitzeko asmoa berresten dugu eta mozio honi baiezkoa emango diogu.”*

Aste honetan, 2016ko otsailak 27an, 40. urteurrena betetzen da Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela eta Tolosako Udalak bat egin nahi du gertakari historiko horrekin eta beste urte batez ere garbi erakutsi nahi du Saharar Herriarekin duen konpromiso

El próximo 27 de febrero de 2016, se cumple el 40º aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática y el Ayuntamiento de Tolosa quiere sumarse a este acontecimiento histórico y demostrar un año más su firme compromiso con el Pueblo

tinkoa.

ACNUR, Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuen agentziak salatu zuenaren arabera, Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan 2015eko urrian eroritako uholde-euriek 90.000 lagun baino gehiagori eragin diete, hauek 25.000 pertsonen etxea galdu dute eta jakirik gabe geratu direlarik.

UPV EHUko Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Euskal Fondoaren sostenguekin burututako hainbat ikerkuntzak frogatu berriak ekarri dituzte Marokoko Gobernuak saharar herritarren artean egindako bortxazko desagertzei eta bonbardaketei buruz. Ikerkuntza horiek, gainera, baliagarriak izaten ari dira Saharar Herriaren aurkako genozidioagatik jarritako kereilaren ikerketan, eta egia, justizia eta ordainketa lortzeko eskarrietan.

Hori guztia dela eta, Udalbatzak, aho batez,

### **ERABAKI DU**

1. Berrestea RASDeko gobernu legitimoa eta Fronte POLISARIOA errekonozitzen dituela, eta behin berriro aldarrikatzen du Saharar Herriak legearen duen autodeterminatzeko eskubidea. Era berean, Espainiako Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola estatus diplomatikoa Fronte POLISARIOaren Espainiako Ordezkaritzari, bera baita Saharar Herriaren ordezkaritza bakarra eta legitimoa, NBEk hala aitortua.

2. Espainiako Gobernuari eta nazioarteko komunitateari eskatzea bultzatzea ditzatela beharrezko ekimen politiko guztiak konponbide zuzen eta behin betiko bat erdiesteko, erreferendum baten bidez, Nazio Batuen ebazpenen arabera.

3. Marokoko agintariei eskatzea bertan behera utz dezatela giza eskubideen alde diharduten saharar aktibisten aurkako

Saharai.

Las lluvias torrenciales caídas en octubre de 2015 en los campamentos de población refugiada saharai han afectado a más de 90.000 personas, 25.000 de los cuales han perdido sus hogares y se han quedado sin alimentos, según denunció la [Agencia de las Naciones Unidas para los Refugiados \(ACNUR\)](#).

Diversas investigaciones llevadas a cabo por el Instituto Hegoa de la UPV-EHU y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, con el apoyo de Euskal Fundazioa, han aportado nuevas pruebas sobre desapariciones forzadas y bombardeos a la población civil saharai a manos del gobierno de Marruecos. Además, estas investigaciones están siendo útiles en la investigación de la querrela por genocidio contra el Pueblo Saharai y en las demandas de verdad, justicia y reparación.

Por todo ello, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

### **ACUERDA**

1. Reafirmar su reconocimiento al legítimo gobierno de la RASD y al Frente POLISARIO y manifestar, una vez más, el derecho de autodeterminación que legalmente asiste al Pueblo Saharai. Asimismo, le pide al Gobierno de España que le dé el estatus diplomático a la Representación del Frente POLISARIO en España, único y legítimo representante del Pueblo Saharai, reconocido así por la ONU.

2. Instar al Gobierno de España y a la comunidad internacional a que promuevan todas las iniciativas políticas que sean necesarias para lograr una solución justa y definitiva, mediante la celebración de un referéndum, conforme a las resoluciones de Naciones Unidas.

3. Instar a las autoridades marroquíes a que cesen las persecuciones contra los y las

jazargoa, saharar preso politikoak aska ditzatela eta argi dezatela desagertutako 400 saharar baino gehiagoren patua.

4. Espainiako Estatuari eskatzea har dezala bere gain duen erantzukizun historikoa; aktiboki lan egin dezala Europar Batasunaren barruan eta aprobetxa dezala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan dagoela, MINURSOri luzatu dakion Mendebaldeko Saharan giza eskubideak zaintzeko emana duen agindua.

5. Berrestea bere konpromisoa lan egiteko bai Tindufen (Aljeria) babestuta dauden errefuxiatu-kanpamenduetan, bai Marokok legez kontra okupatutako lurraldeetan, Euskal gizarteak Saharar Herriak bere askatasunaren alde daraman borroka zilegiari ematen dion sostenguaren erakusgarri.

6. Bene-benetan eskertzea euskal herritarren lankidetzaren interes-gabea eta eskuzabaltasuna, horiei esker aurrera eraman daitezkeelako Saharar Herriarekiko lankidetzaren proiektuak, hala nola euskal elkartasun-karabana, Oporrak Bakean, e.a.

activistas saharais de derechos humanos, a que liberen a los presos políticos saharais y esclarezcan el destino de más de 400 saharais desaparecidos.

4. Instar al Estado español a que asuma su responsabilidad histórica y trabaje activamente dentro de la Unión Europea y aproveche su presencia en el Consejo de Seguridad de Naciones Unidas para que la MINURSO vea ampliado su mandato a la vigilancia de los derechos humanos en el Sáhara Occidental.

5. Reafirmar su compromiso de trabajar tanto en los campamentos de población refugiada en Tinduf (Argelia), como en los territorios ilegalmente ocupados por Marruecos como muestra del apoyo mayoritario de la sociedad vasca a la legítima lucha del Pueblo Saharaui por su libertad.

6. Agradecer sinceramente la colaboración desinteresada y la generosidad de los ciudadanos y las ciudadanas vascas que hacen posibles proyectos de cooperación con el Pueblo Saharaui, tales como la Caravana vasca solidaria, Vacaciones en Paz, etc.

#### **4. Correscales, prekaritatearen aurkako Korrikari babesa emateko adierazpena.**

Partehartzeak:

... Lore Agirre Zipitria (EHBILDU). *“Atzo, otsailaren 22an, amaitu zen Correscales Bartzelonan, bost egunetan elkartasunez beteriko 800 km eginda. Abiapuntua, Movistarreko azpikontratek iaz eginiko hiru hilabeteko grebaren ondoren euren egoera salatzea izan arren, gizarte osora pasa da aldarrikapena.*

*Izan ere, azken 30 urtetan bai enpresa handiak bai zerbitzu publikoek azpikontratatu enpresa sare handia sortu dute eta lan bera egitearren truke baldintza ezberdinetan daude langileak. Horri gaineratuz, aipatzen den bezala, aldiari aldiari lan erreformak langile lan eta bizi baldintzak okertzea ekarri du eta era berean antolatze gaitasun hori ahultzea.*

*Beraz, Correscales bezalako ekimenak balio dezatela prekaritatearen aurka eta duintasunaren alde modu kolektiboan borrokatzen hasteko. Bizitza duin eta justuagoa lortzeko eskubide eta baldintzak erdietsiz, elkarri lagunduz eta elkarrekin.*

*Zentzu honetan, guk aurkeztua izanik, EHBILDUK bat egiten dugu mozioarekin. Udalarri dagokionean, ahal dugun heinean, batzordeetan, aurretik ere klausula sozialen gaia ere aipatzen da osoko bilkura honetan, saiatuko gara horren gainean egoten eta azpikontratatu enpresen egoerak aztertzeke eskatu genioke Udal gobernuari.”*

#### **4. Declaración a favor de la carrera contra la precariedad laboral**

... Alkatea: *“Askotan aipatu izan da krisi ekonomikoaren egoerak ekarri dezakeela prekariedade egoera hainbat enpresetan. Adierazpen instituzional hau Batzar Nagusietan onartua izan da, alderdi guztien adostasunez gainera, eta aldarrikapenarekin guk ere bat egingo dugu.”*

Udal idazkariak adierazpena irakurri du:

**“CORRESCALES- PREKARIETATEAREN AURKAKO KORRIKA**

*Correscales, 2016ko otsailaren 18tik 22ra, Bilbo eta Bartzelona lotuko dituen “Prekarietatearen aurkako Korrika” da. Telefonica-Movistarrentzat lan egiten zuten tekniko, autonomo eta azpikontratatuak eginitako 80 eguneko greban du ekimen honen abiapuntua. Egun Correscales elkar laguntzek proiektu sozial, ekonomiko, kultural eta komunikatiboa da.*

*Ibilbidean zehar duintasunaren aldeko dokumental bat grabatuko da eta bertan kapitala metatzeko eskubidearen ondorioz beste askok bizi behar dugun egunerokotasun prekario emozional eta materiala jasoko da.*

*Guzti honen helburua oinarrizko lan eskubideen alde lan egiten duten kolektiboentzako elkartasunezko funts kooperatibo bat osatzea da. Hala, gure bizitzan gain erabakiak hartzen dituztenei aurre egiteko bitarteko bat sortuko da eta helburu hau posible egiteko 70.000 herritar eta elkarteren parte hartzea bilatzen duen aurrekaririk gabeko Crowdfunding dinamika jarri da abian.*

*Movistarreko langileek abiatutako ekimen hau herri, auzo eta hiri mailako elkarte, eragile eta herritar askoren babesa jasotzen ari da. Herrien arteko elkartasuna, langileen arteko elkartasuna dela ulertzen duten elkarte, eragile eta herritarren babesa.*

*Tolosaldean ere egoera prekarioan ari den langile asko dago. Prekarietatea egiturazko arazo bihurtu da. Duela urte batzuk emakume, etorkin eta gazteengan lokalizatuago zegoen arren, gaur egun, edozein langile egon daiteke prekariedade egoeran. Dagoeneko lanpostu bat edukitzea ez baita pobreziatik ateratzeko bermea.*

*Testuinguru honetan, Tolosako Udaleko EHBilduko udal taldeak honakoa proposatzen dugu:*

- Tolosako Udalak, Correscales, Prekarietatearen aurkako Korrikari babesa adieraztea.*
- Tolosako Udalak Correscales ekimenaren baitan egiten ari diren diru bilketan, 200€ko ekarpena egitea, kilometro bat erosiz. [cc.goteo/correscales](http://cc.goteo/correscales).*
- Tolosako Udalak kontratu eta konkurtso publikoetan klausula sozialak indartzeko eta hauen jarraipena egiteko konpromisoa hartzea.*
- Tolosako Udalak prekariedade sortzen duten enpresekin dituen harremanak berraztertzea.”*

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

**5. Zinegotzi baten kargu uztearen jakitun izatea.**

PSE-EE (PSOE) taldearen zinegotzia den Jose Ignacio Asensio Bazterrak karguari uko egin dio dagokion idazkia aurkeztuz. Egoera hau aztertu ondoren,

**5. Tomar conocimiento de la renuncia del cargo de un Concejal.**

El concejal del grupo PSE-EE (PSOE), Jose Ignacio Asensio Bazterra, presenta mediante el correspondiente escrito su dimisión del cargo de concejal del

eta Hauteskunde-Eraentza Orokorra arautzen duen Lege Organikoaren 182. Atalean xedaturikoa kontutan harturik, Udalbatzak honako hau

Ayuntamiento de Tolosa, y considerando lo dispuesto por el artículo 182 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, el Pleno de la Corporación municipal

### ERABAKI DU

### ACUERDA

**Lehen.-** Jakinaren ganean geratzea PSE-EE (PSOE) taldeko Jose Ignacio Asensio Bazterrak zinegotzi karguari uko egin diola.

**Primero.-** Tomar conocimiento de la renuncia del cargo del concejal Jose Ignacio Asensio Bazterra, por el grupo político PSE-EE (PSOE).

**Bigarren.-** Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea PSE-EE (PSOE) taldeari dagokion hautagaiari zinegotzi kargua eman diezaiola.

**Segundo.-** Solicitar a la Junta Electoral Central que designe al candidato de PSE-EE (PSOE) que corresponda para que desempeñe el cargo de concejal.

**Hirugarren.-** Hauteskunde Batzorde Zentralari erabaki honen berri ematea.

**Tercero.-** Comunicar este acuerdo a la Junta Electoral Central.

- ... Jose Ignacio Asensio Bazterra (PSE-EE): *“Zinegotzi kargu uzte honetan eskerrak eman bai tolosar guztiei, bai udaleko langileei, nirekin izan duzuen pazientzi eta jarrerarengatik. Eta beste alderdiko kideei izan dugun zintzotasunagatik gure erlazioetan. Baita ere gogoratu nahi nituzke gaur gure artean ez dauden, eta zinegotzi izan diren, bai Miren Urkola eta bai Joxelu Andueza. Azkenik, aipatu nahi dut nire ordezkari Cristian Fernandez sartuko dela eta ziur nago ordezkari lanak nik baino hobe egingo dituela. Guztioi mila esker, benetan.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBILDU): *“Eskerrik asko Jose Ignacio. Jada izan dira bost urte hemen lanean, batzutan ados eta besteetan desados, normal den bezala. Estimatu ditugu egindako ekarpenak eta egin duzun ahalegina aurreko legealdian gure gobernuak lana hobetzeko eta ikuspegi horretatik eskerrak berriz ere. Orain daukazu kargu berri horretan asma dezazula gipuzkoarrentzat ondo eta hobeki lan egiten, gure lurraldea hobea izan dadin etorkizunean, jasangarriagoa, berdeagoa eta ekologikoagoa!”*
- ... Alkatea. *“Sumatu genuen zuen Diputatu izendapenak ez zizula denbora gehiegi utziko zinegotzi ordezkariak eskatzen duen denbora eskaintzeko, baita ere udaletxeari. Baina bai eskertu hilabete hauetan egindako lan guztia. Badakigu zinegotzi ez izanagatik herritar bezala ekarpenak egiten jarraituko duzula eta zorte onena opa zure ibilbide horretan.”*

### 6. Galderak eta eskaerak.

### 6. Ruegos y preguntas.

- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBILDU): *“Gogoeta bat egin nahi nuke. Bost pleno egin ditugu. Aurrekontuetakoa izan ezik, mamitsua izan zela, daukagun sentsazioa kontu emateko egiten direla edo adierazpenak, daukaten garrantzia ukatu gabe, onartzeko. Eta gehiago esango nuke, pleno batzuk monografikoak izan behar dutela uste dut. Baina daukagu sentsazioa mami gutxikoak direla, bost, sei puntu tratatzen dira eta ez dakit zenbateko mamia daukaten*

*pleno hauek.*

- ... Alkatea: *“Oso ondo dakizuen bezala, osoko bilkuran pasatzen diren gaiak dira osoko bilkuraren eskumeneoak direnak eta horrek ez du esan nahi udalak bere dinamika gelditzen duenik . Badira beste hainbat gai Gobernu batzordean pasatzen direnak eta beste hainbat gai batzorde informatiboetan. Kontutan izanik otsaila dela urteko hilabeterik motzena, tartean gainera lñauteiak izan ditugu. Otsailean, hori baldin bada ardura, Udala ez da geldirik egon. Hilabete honetan Tolosako hondakin bilketa sistemaren aldaketa gauzatu da, Berazubiko horma margotzeko prozesu partehartzailea martxan jarri da. Atzo bertan, Eskualdearen bideo promozionala aurkeztu genuen Tolosaldea Garatzenen. Merkataritzarekin akordio marko bat landu da, baita hitzarmen batzuk ere atzo bertan batzordetik pasa zirenak, ekintzaile berriak daude Lehiberrin, enplegu programarekin lanean ari gara, pobreziaren diagnostikoa egiteko harremanetan gaude Deustoko Unibertsitatearekin; plan estrategikoa garatzeko partaidetza lanketa eta metodologia lantzen ari gara Partaidetza eta Gardentasun batzordean. Foru aldundiarekin bilerak egin dira, baita ere, Eusko Jaurlaritzako Partaidetza zuzendariarekin egon gera Gazteizen. Berdintasun batzordetik martxoaren 8rako egiten den sentsibilizazio kanpaina, lanketa hori egin da baita ere otsailean protokolo mahaia egon da, hezkidetza mahaia egon da, hainbat eta hainbat gai landu dira hilabete honetan. Hori baldin bada zuen ardura, ez dago Udala geldirik. Hala ere, aurreko urteko otsaileko plenoko gai zerrenda begiratu gero , eta aurrekoaren aurrekoa, ikusiko duzue gaurko zerrendarekin ez dagoela alderik. Alde bat badago, martxoaren 8ko adierazpen instituzionala otsaileko osoko bilkuren gai zerrendan egoten zela. Aurten sailetik eskatu da ezohizko osoko bilkura antolatzea, gaiari garrantzi berezi bat emateko, eta horrela egingo da. Osoko bilkura egingo da martxoaren 2an, Martxoak 8ko adierazpen instituzionala onartzeko eta horren inguruko gogoetak osoko bilkuran egiteko.”*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Pertsona bat ekarri nahiko nuke gogora: asteburu honetan guztiz ezaguna zen Martin Mantso hil zaigu. Amarozko auzo elkarteko kidea, Tolosako babarruna, urteetan eta urteetan, landu, garatu eta sustatu duena. Langile borrokatuezin, nekaezin bat, sindikalista, Elkarrin bakegintzan lan egin zuena, eredu bat gauza askotan, lagun bat. Urte asko, osasuna oso ondo ez zeukala, borrokan jarraitu duena. Eta zentzu horretan, inportantea iruditzen zait bere aipamena hona ekartzea, pertsona gutxi daudelako, eta gehiago egon beharko lukete, herria horrenbeste maite eta herriarengatik horrenbeste eman dutenak . Beraz, ze gutxiago, herritarren ordezkariak garen neurrian, horrelako borrokalaria ernegatu baten aipamena ekartzea baino!”*
- ... Alkatea: *“Egia da, bai. Bat egiten dugu Ibaik esandako hitz horiekin eta baita ere luzatu besarkada handi bat bere senitartekoei.”*

Besterik gabe, gaueko 20:25ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 20:25 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA